



LEIDOR TXANTXOZ JANTZITA LARUNBATEAN

Aitz-Orratz elkarteak antolatuta, haur jaialdia izango da, 16:30ean; mozorroak eta pailazoak izango dira, besteak beste » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-01-23

VIURTEA 1.343.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOSE MANUEL TOBIAS LAUBURU KE-REN ZUZENDARITZAKO KIDEA

«Behin lehen itzulia amaituta mailari eustea izango da gure helburua»

IBARRA Lauburu KEko lehen taldea zazpigarren postuan dago; lehen itzulia «ez da loreak botatzeko modukoa izan»

ZAILTASUNAK «Aurten gure taldeari guztia elkartu zaio: arazo pertsonalak, bi zigortu, lesionatuak,...» 7



Noaoa! saioko lau partaideak: Goitik behera eta ezker-eskuin: Alkain, Pagadizabal, Iraola eta Tolosa. I. GARCIA



E. EZEIZA

IÑAKI ARRATIBEL TOLOSA CF-REN LEHENDAKARIA

«Berazubi zelaia eta Usabal kiroldegia lotu egin behar dira»

TOLOSA Tolosa CFren lehendakaria pasa den asteko urteko batzarraz jardun da 2

ESKUALDEKO ARTISTAK EUSKARAZ EGINIKO UMOREAN ERREFERENTE

TOLOSALDEA ETB1eko 'Noaoa!' saioan partaide dira eskualdeko Anjel Alkain, Mikel Pagadizabal, Jon Iraola eta Ainere Tolosa 4-5

Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen baitan, gaur hitzaldia

IBARRA Kaldereroak eta haur festa ere izango dira datozen egunotan 7

Atxagaren 'Soinujolearen semea' lanak Grinzane Cavour saria irabazi du

ASTEASU Atzerriko narratiba sailean eskuratu du saria idazleak 6

E Elkarrizketa**IÑAKI ARRATIBEL** > Tolosa CFren Lehendakaria

Kirola » Urte hasieran beti egiten duten bezala, Tolosa CFren bazkideek urteko batzarra egin zuten joan den astean; egun, klubeko lehendakari da Iñaki Arratibel medikua.

ESTI ZEZEIZA

Tolosa CF klubeko kideek urteko batzarra egin zuten joan den astean, eta epe ez oso luzerako zenbait aldaketa emango dira Berazubini. Egun, 1.000 bazkideetik gora ditu taldeak eta horietatik 450, kirolariak dira. Klubeko lehendakari da Iñaki Arratibel (Tolosa, 1959) kirol medikua.

Batzarrea, hasteko, aurrekontuetaz hitz egin zenuten.

Beti egiten den bezala, aurreko akta onartu genuen eta gero, hurrengo aurrekontuak aurkeztu.

Aldaketarik ba al dago hurrengo aurrekontuetan?

Ohartu garena da, aurrekontuetan, Tolosak duen funtzionamenduetatik, alde batetik, Tolosa entitate bezala dagoela, eta bestetik atal bakoitzak bere kontu lan egiten duela. Ondorioz, aurrekontuetatik askotan ez dute bat egiten. Horregatik, askotan esaten genuen, nola zitekeen, horren aurrekontu txikia izatea. Horren aurrean, planteatu duguna da, batetik, agertzea, taldearen gastu orokorra, eta bestetik, atal zehatzena. Hala, aurrekontua ia 500.000 eurotara iristen da.

Hala ere, musutruk lan egiten duen asko daude.

Gastu asko bakoitzaren edo gurasoen poltsikotik ordaintzen dira, esaterako, garraiobideak. Horregatik, nik nahi nuena zen, entitate ofizial baten aurrean agertzean, garbi uztea, benetako gastuak beste batzuk izango lirakeela. Ohartzeko beraiek ere, diferentzia hori nonbaitetik ordaintzen dela.

Aurreko urteekin alderatz, asko al dira aurrekontuak?

Ez, gutxi. Agian, taldeen aurrekontua igo bada ere, kontuak askoz ere zehatzago egin direlako da. Bestela berriz, azken lau bosturteetan ez da gehiegi igo.

Egun, nondik dator hau guztia finantzatzeko dirua?

Alde batetik, bazkideetatik. Bestetik, Udalarekin hitzarmen bat daukagu Berazubi zaintzeko. Diru pixka bat ere jasotzen dugu kirol funtzionamendurako. Dena den, aztertzen ari naiz, inguruko he-



ESTI ZEZEIZA

«Berazubi eta Usabal lotu egin behar dira»

rriek jasotzen dituzten laguntzak, eta gurean aldean gehiago dira. Hala ere, hitz eginda daukagu eta onartuta daukate. Hala ere, urte askotan aurrekontu batekin funtzionatu duzunean, zaila da hau, urte batetik bestera %400 igotzea, besteengana gerturatzeko.

Egoera onean al dago egun, Tolosa CF?

Kirolaren aldetik oso ondo dago. Joan den urtean 450 kirolariri egin genien fitxa, eta hori asko da. Bestetik, hazteko gai gara oraindik eta Usabalgo instalakuntzek ere lagundu egin digute. Honez gain, orokorrean, gizartearen zabaldu den pentsatzeko modua da, klub batean sartzea ez dela jada lehen bezala. Jendeak ulertzen du, kirola egiteko eta ongi funtzionatzeko, klub edo talde baten esku egon behar duela dena. Azkenik, gurasoak ere konturatu dira, ekonomikoki lagundu beharra daukatala. Gainera, orain, instituzioekin ditugun harremanak beste modu batekoak

dira. Orain, badakite, herriaren-tzat lanean ari garela.

Instalakuntzei dagokionez?

Bai, baina hau ere bideratuta dago. Udaletxeak ikusi du jada, Berazubiren beharra eta garrantzia. Hori dela eta, agertu dugun asmoa da, Usabalekin elkartzearena. Bai, instalakuntza guztiak lotuta egon behar dutelako horrelako herri batean. Baita, guk, talde batzuk ditugulako Berazubini eta besteak Usabalen, eta funtzionamendurako, hau oso nahasgarria da. Horregatik, egunen batean elkartu egin beharko lirake.

Udalaren esku geratuko al da Berazubi?

Oraindik ez da ziurra, baina garbi dagoena da Udalak eskua sartuko duela martxan jartzeko eta funtzionamendua publikoa izango dela. Zailena izango dena da, hori dena horrela egiteko formula bat bilatzeta. Izan ere, lurra Muñoz fundazioarena da eta hanka ezberdinak daude. Honek Tolosari

emanda dauka alokairuan, kirola mantentzen den bitartean. Egoera honelakoa izanda, planteatu behar dagoena da, zer egin eta formula bilatu.

Zein izango litzateke formula hori?

Gu irekita gaude proposamenetara. Nahi duguna da Berazubi berri bat izatea, ongi ekipatua dagoena, eta Usabalekin lotura duena. Formula oraindik ez daukagu, baina denen irudian dagoena da, irekia izango dela eta kirol txartelarekin funtzionatuko duela.

Berazubi berritzeko proiektu bat prestatu duzue; zeintzuk izango lirake aldaketak?

Gutxienez egin beharra dagoena da, aldagelak dauden eraikina bota eta berri bat egitea. Bertan, aldagela, bulegoak eta bilera gela joango lirake. Bestetik, hor baruruan sartu nahi dugu atletismoko dorrea. Tribunak mantendu egingo lirake, nahiz eta zer bait konpondu. Hauek Berazubiren ezaugarri berezietako bat baitira. Behekaldearekin zer egin ere erabaki beharra daukagu. Honez gain, beste aldean, orokorrean, hau, bota eta atletismoko tunel bat egin nahi dugu, neguan entrenatu ahal izateko. Frontoiari dagokionean, hau estali egingo genuke. Hori ere diru asko nagusiak baina beste egitasmo batzuk ere badauzkagu. Azkenik, Udalak erabaki beharra dauka, zer egin nahi duen igerilekuarekin.

Zer da Berazubik bereizgarritza duena, eta aldatuko ez dena?

Proiektu honekin, ahal dena mantentzea lortu nahi dugu. Bota behar den eraikina izango da bereizgarrietako bat. Pena handia emango dit, denok argazki hori ikusten baitugu. Baina egun batean iritsiko da hau kentzeko garaia. Gure beste asmoetako bat da, Berazubi inguratzeko duen hesi guztia kentzea eta beste modu batean jartzea. Irekia jarriko genuke, jendeak ikusi dezan zer dagoen baruruan.

Noiz aurreikusten duzue berritze proiektua?

Oraindik ez dago zehaztuta, baina badakigu, udaletxeak nahiko azkar egin nahi duela. Joan den astean egin genuen azken bilera beraiekin eta helburua da, ahal den azkarren martxan jartzea. Hala, obrak nahiko azkar hasiko direla uste dut, baina argitu behar direnak izango dira, zeintzuk izango diren faseak. Dena ongi eta posible balitz, uda pasatakoan hasiko ginatela lanekin.

Tolosarentzat zer da Berazubi?

1.000 bazkidetik goragara, eta hori da askotan galdetzen duguna. Zer eskaintzen diegu guk bazkideei? Badakigu 450 inguru kirolariak direla, baina beste guztiak zer? Nire ustez, hor daude, Tolosa CF, kirola mugitu duen talde garrantzitsu bat delako daude hor, honi babesa ematen. Horregatik, hori da mantendu behar dena, eta jendea lanean ari dela ikustea kirol ezberdinak mantentzeko.

L Laburrak**Liburutegia ordu gehiagoz egongo da zabalik**

KULTURA » Azterketa garaia izanik, ohikoa den bezala, Udal Liburutegiaren goizeko ordutegia zabaldu egin dute. Otsailaren 15a bitartean 09:00etatik 13:00etara egongo da irekita Aranburu Jauregia.

Bihar, Zine-forumean, 'Tristram Shandy'

KULTURA » Aste honetako zine programazioaren baitan, Zine-forumean Michael Winterbotton zuzendariaren *Tristram Shandy* filma izango da ikusgai. Ohikoa den bezala bi saio eskainiko dituzte bihar, Leidorren. Lehendabizikoa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Charo Berraren erakusketa ikusgai da Aranburun

KULTURA » Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa ikusgai da egun hauetan Aranburu Jauregian. Inaugurazioa, abenduaren 14ean egin zuten eta otsailaren erdialdera arte dago zabalik. Ordutegia ondorengoa da: 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

T Telefonoak**Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leizta.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozki-Elduain.**

943 672637

Amurcion klinika: 943 675799 -

943 675390 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leitzaran autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leizta):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udalatzaingoa:** 943 675858**Tolara:** 943 650016**Iurrarengi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalamsa etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Haurrek ederki igaroko dute larunbat arratsaldean Inauterietako haur jaialdian. I. GARCIA

Inauterietako haur jaialdia larunbatean, Leidor aretoan

Inauteriak » Aiz-Orratz elkartek antolatuta, 16:30ean hasiko da; mozorroak eta pailazoak izango dira, besteak beste.

INIGO TERRADILLOS

Hastear dira Inauteriak. Aurtengoan inoiz baino goiztiarrago datoz, eta konturatzerako, gainean ditugula eta gutzia prest ez dugula ikusirik, urduritzen hasiak ere bagara; baina dena den, Ostegun Gizona noiz iritsi irrikaz daude herri-targuztiak.

Lehenago, ordea, larunbat honetan, Inauterietan barneratzen hasiko gara pixkanaka, izan ere,

Aiz-Orratz elkartek antolatuta, urtero bezala, Inauterietako haur jaialdia izango da, Leidor aretoan, 16:30etik aurrera.

Ohiko osagaiak izango ditu jaialdiak; batetik, marrazki lehiaketaren irabazleak zein diren jakingo da. Lehiaketako gaia Inauteriak izaten da, eta Tolosako ikastetxeetako neska-mutiek hartu ohi dute parte. Horretaz gain, mozorro lehiaketa ere izango da; gaztetxo guztiak mozorrotuta joan ohi dira jaialdira, eta horietako batzuk epaimahairen aurretik pasatzera ere animatzen dira. Hala, sari banaketa egingo dute mozorro irabazleen artean, eta sari bezala, besteak beste, hurrengo larunbatean, hau da, Zaldunita Bezperako dan-

borradako karrozan irteera izango da. Aitor Elduaen eta Maier Lopeategi aurkeztuko duen jaialdian pailazoak ere izango dira, hain zuzen ere Poxpolo eta Mokolo tolosarrak, Alberto Gonzalez magoa eta Lierni Karrera buru dutela animatzaileak egongo dira. Haurrak jolasean jarriko dituzte pailazoak, eta askaraia ere emango zaie doan. Guztiek primeran igarotzeko osagaririk falta ez zaion jaialdia, beraz.

Gero eta arrakastatsuago

Azken urteetan harrera handiago izaten ari dela azaldu dute antolatzaileek, eta aurtien ere hala izatea espero dutela, horregatik, gaztetxo guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera.

«Helburua Tolosaldeko haurrak Inauterietan murgiltzea da»

JUAN MIGEL ZUGASTI » Aitz-Orratz elkarteko kidea

I. TERRADILLOS

Juan Migel Zugasti (Legorreta, 1956) duela 26 urte etorritzen Tolosara bizitzera. Gustuko ditu Inauteriak, baina koadrilakoak mozorrotzen badira, orduan bai mozorrotzen dela azaldu du, «bestela, bakarka ez». Ideiak ematen eta prestatzen eta aritzea ere gustatzen zait, eta Inauteriez gozatzen dut. 15 urte daramatza Aiz-Orratz elkartean, eta urte horiek baita ere Inauterietako haur jaialdia antolatzen duen taldeko kide bezala.

Larunbat honetan da jaialdia, baina prestatzen aspaldi hasiko zineten.

Bi hilabete inguru lehenago hasten gara. Aurtengoari dagokionez, iazko azaroan hasi ginen. Izan ere, lehenago adibidez, ikastetxeetan marrazki lehiaketa prestatu behar da. Talde desberdinetan banatzen



I.T.

gara antolatzeko, eta ni horietako kide naiz, eta era berean, jaialdia koordinatzen dut.

Mozorro lehiaketa da jaialdiko puntu nagusia.

Marrazki lehiaketa jaialdiaren zati bat da, eta bestea, mozorro lehiaketa. Jubilatuen egoitzan epaimahaia egoten da, eta handik lehiaketa

tan parte hartu nahi duten gaztetxoak pasatzen dira mozorroturik ikus ditzaten. Gero eta haur gehiago animatzen dira, iaz esaterako, 70 bat haurrek hartu zuten parte.

Lehen Beotibar pilotalekuan egiten zenuten.

Bai, baina azken 4 edo 5 urteetan Leidorren egin dugu. Aldaketa onerako izan da, baldintza askoz hobeak baititu jaialdia egiteko, eta gure lana erraztu egin du.

Zein da jaialdiaren helburua?

Tolosaldeko haurrak Inauterietan murgiltzea, Inauterietako kutsua zabaltzea umeengan, hori da gure asmoa. Horretarako, jaialdia antolatzen dugu, eta haurrak mozorrotzera gonbidatzen ditugu, eta Zaldunita Bezperako danborrada ere egiten dugu Tolosako ikastetxeetako haur eta gazteen parte-hartzearekin.

TXOTX

Urbaitarte

Ergoien auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laia

Arkolla auzoa, 33 (www.laiaerretetgia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiaerretetgia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Arander bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523 905 Errenteria

Txopinondo

Sagarnotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Begiristain

Iturriotz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leitza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

NORA JOANGO NAIZ BA?



Noaoz' saioko Tolosaldeko lau partaideak, aurretik atzera: Iraola, Tolosa, Pagadizabal eta Alkain. ©GARA

Gizartea » ETBleko 'Noaoz' umorezko saioaren partaide dira eskualdeko Anjel Alkain, Mikel Pagadizabal, Jon Iraola eta Ainere Tolosa.

IMANOL GARCIA

Wazemank' saioa egiten zuten lan taldeak Noaoz' saioa jarri du martxan denboraldi honetan. Orain gutxi arte ostriala gauetan ematen bazuten ere, egun igandetan ematen

ten dute ETBten, 21:30ean. Lan taldearen zati handi bat eskualdeko da. Astearen bizi den Anjel Alkain (Aldoaín, 1966) zuzendaria, Mikel Pagadizabal (Villabona, 1974) eta Jon Iraola (Ibarra, 1980)

aktore eta gidolariak eta Ainere Tolosa (Zizurkil, 1979) aktorea. Barrea eragitea da euren lana eta beraien artean giro ona dagoela erakusten dute.

Saioa ostriala gaurtik igande gauera pasatzeko erabakia hartu zuten ETBk. Alkainek azaltzen duenez, «ostriala denak ez ziren txarrak, baina gazte askok ikusten dute programa eta hori izan da arrazoietako bat igande

gauera pasatzeko. Ikuslegoaren dinamizazioa da erantzuna».

Jertze berria

Denboraldian hasieran aldatuta handiago izan zen. Wazemank' atzean utzita, Noaoz' saioarekin hasi ziren. Bi urte eta erdi eman zituzten Wazemank'eko sagar berdeak dastatzen eta aldatu behar zela ikusi zuten. «Alde batetik», dio Alkainek, «ez da super-

produzioa. Lau buru arigara pentatzen eta esker asko egiten gaituen. Bestalde, niri behintzat, noizean behin jertze berri bat erosten gustatzen zait, aldatu egiten».

Noaoz' beste itxura bat elarri du. «Orain platoon bertan show pikar gehiago egiten da», azaltzen du Alkainek. «Minutu gehiago hartzen ditu platoonak. Lehen esker-tuei leku emateko izaten zuten platoon egiten genuena. Kalean gehiago egiten genuen. Orain platoon kolaboratzaileak erortzen dira». Ikusleok Wazemank'eko

'Noaoz' saioan platoon minutu gehiago hartzen dituzte 'Wazemank' en baino

Xelebrekeriak pentatzerakoan «gauza normalean oinarritzen gara, hurbileko gaietan»

atal batzuek jarraipena izatea nahiko zukeela ikusten du Alkainek. «Jertzeak agertzen diren bitartean nahiko litzuke agian, baina sakal batean 68 istorio kontatzen dituzte eta...».

Egun bat lanean

Grabitxo egun bat «gogorra» izaten dela azaltzen du Mikel Pagadizabalek. «Iraola eta biok gidolariak gara eta batzuetan idazten eta beste batzuetan grabatzen artzen gara eta bi lanean batera ere baino, dio. «Goizean goiz hasi eta bi esker egiten dira, bozkaldi eta gero beste esker. Beste egun batzuetan goizean idazten artzen gara eta gero arratsaldean grabatzen».

Kanpoin gaurtaldeak egiten dituzteneez da lan samarra izaten. «Kamera bakarra izaten dugu», azaltzen du Ainere Tolosak. «Horrek esan nahi du dena zortzi aldiz egin behar dela. Platoon batean lau kamera daude eta horrek lana errazten du. Kanpora joan behar da gaurtaldeak».

Bestalde, lan taldean zenbait aktore gidolariak dira ere eta «Horrek esan behar du hori ez dela esan behar eta beraiek bueltan oso barregarria zela».

Alkainek lehendakariaren ekin gertatutako azaltzen du: «Zabereko planda berria inauguratu behar zuten eta lehendakariaren zioen bertara. Langilek esan zioten familia-ekin joateko, buruko-eta egongo zela. Haur batek lehendakariari ikusi zuen, aitari 'begira Wazemank'eko' esan omen zion».

Beste batean, benetako Eguzkitzeri emakume batek galdutako omen zion orain zorri pasatuko klasa jarri zion omen zioten buruan. Pagadizabali famak ez dion kintzen: «Niri Kalakako Iñigo Agirre nirez esaten ditute».

«Eredulazio lanean aritzen gara, beste lan talde batzuk ere ondoren egiten dira eta barre gehiago gait egiten dugu», dio Alkainek. Pagadizabalek gaineratzen du: «Biderak egiten direnean, xelebrekeriak bota behar ditugu eta, noski, barre-ak egoten dira».

Egurenokoa oinarri

Xelebrekeriak pentatzerakoan «gauza normalean oinarritzen gara, hurbileko gaietan», azaltzen du Pagadizabalek. Bestalde, esker-tuei pentatzerakoan ezberdintza sunak daudela zehazten du Alkainek: «Gauza bat da esker susekoak, lau okurritu zait eta oso on da eta hori egongo dugu, eta beste da bi atsorekin zer egin daitkeen pentatzen jarraia».

Tolosak gaurtaraten duenez, «gidolariak eta zuzendariak proposamenak jasotzeko prest egoten dira. Ez da gauza txiki bat izaten, lan talde berrak elkarren artean egiten ditugula zentuz guztietan».

Euskal Telebistako programazioa ere eraldatu daiteke, azaltzen du zela. «Pentasa gure gure programa barre egiteko den bakarre-tarikoa dela ETBten», dio Alkainek, «eta tarte bat ematerik badugula ETBn buruz hitz egiteko. Egiten diren errepikapenak, 1990ko aurresku txapelketa 10. aldiz errepikatzen... Kete bonak ematen du barre egiteko».

Euskaraz egiten den umorearen erreferente nagusienetakoa da Noaoz' baina horri ez diote begiratzen. «Ardua gehiegi emanez gero, txarra izango zena», esaten du Alkainek. «Pisu kontzen diogu hori. Ahal den ondoren pasatzen dugu eta kitto. Eta jendeak esker-tuei badu...». Saioko zuzendariak gertu du jendea barre egitatez dela «dagoen gauzak poline-tetako». Batzuetan asmatuz, besteetan ez, baina orokorrean jendeak ikusi dezala lan bat dagoela hemen, saiatzeko gaitza.

Famarekin jira-bira

Erreferentzia izatea eta telebista agertzeak famatua izateko ere elkarren du. Anketariak ez zaitz falta horretan eta Iraolak bat oharitzen du gogora: «Taberna batean nengo. Egu berri egunean eta host urko omen batzuk gelditu zitzaizkidan begira eta 'zu Putakumia zara' esaten hasi zizkizidan. Nik berrietaz hitz egin hori ez zela esan behar eta beraiek bueltan oso barregarria zela».

Alkainek lehendakariaren ekin gertatutako azaltzen du: «Zabereko planda berria inauguratu behar zuten eta lehendakariaren zioen bertara. Langilek esan zioten familia-ekin joateko, buruko-eta egongo zela. Haur batek lehendakariari ikusi zuen, aitari 'begira Wazemank'eko' esan omen zion».

Beste batean, benetako Eguzkitzeri emakume batek galdutako omen zion orain zorri pasatuko klasa jarri zion omen zioten buruan. Pagadizabali famak ez dion kintzen: «Niri Kalakako Iñigo Agirre nirez esaten ditute».

DI-DA BATEAN

1. Gustuko umorista? 2. Umorista izatearen alde ona? 3. Eta alde txarra? 4. Saioan egiten duzun gustuko pertsonaia?



«Carlos Latre gustatzen zait imitatzaileen arteko»

Jon Iraola

UMORISTA ETA AKTorea

1. Lehen, biktan, ez bazitzauden gustatzen ere, orain gutxi Pedro Reyesekin hitzatu egin nuen. Beste bi imitatzaileak niretzat horretan Carlos Latre gustatzen zait, irratian telebistan baino gehiago.

2. Egun guztian txoroarena egiten dituen garaia eta hil bukaeran ko-bratu egiten duta.

3. Txoroarena egin behar denean eta ez daukaturik nire beste gogo edo animo horretarako.

4. Asintxo, sagardotegikoa.



«Sormena asko garatzen duzu horrelako lan batean»

Mikel Pagadizabal

UMORISTA ETA AKTorea

1. Lo Horri Chonone edo Muchochado Nui, Monty Python eta Chiquito de la Calzada.

2. Sormena asko garatzen duta. Egurero eronka bat bezala da gauza berriak asmatzen aritza.

3. Alde txarra ez dion bitatu. Alde txarra lehen izaten zen, hamabi ordu lanean eta mila euro ere ko-bratu gabe.

4. Rufino, Obituoko kojoa eta atsak egiten gertatzen zait.



«Lan polita da jendea barre egin arazteko»

Anjel Alkain


UMORISTA ETA AKTorea

1. Fasmio eta Carisado asko gustatzen zait.

2. Jendea barre egin arazteko oso lan polita izaten zait.

3. Kanpin denda jarrita dugu Miramonen eta horretarako bakarrik zaudela. Ez daukagu asirik gustuko beste gauzak egiteko. Auzatuta daukagu gustuko gauza horiek, baina bagenezkan.

4. Julian sagardotegikoa edo Olegasari bera, gustuko pertsonak ditut.



«Ondo pasatu eta deskonektatu egiten duzu»

Ainere Tolosa

UMORISTA ETA AKTorea

1. Monty Python asko gustatzen zait.

2. Ondo pasatzen duta. Deskonektatu egiten duta, denbora pasatzen duta.

3. Jendeak ezagutu egiten duta kateki zozozten. Ez da gaitxi erortzen direla, baina askotan begi pila bat nabaritzen dituzu zuri begira. Eta askotan nure ondokoek pasatzen dute gaitxiago.

4. Izara handiko pertsonak.



Anjel Alkain Olegasariaren pertsonaia egiten, Aitona XIII. Unbertutetatean. ©GARA



Etziko Kaldereroetarako entsegua

IBARRA • Uzturpe Ikastolak, Loatzo Musika Eskolak eta Hauspoa Kultur Elkarteak antolatuta, haur eta helduak Uzturpen elkartu ziren atzo Kaldereroetarako entsegua egitera. Esku batean zartagi txikia eta bestean maila bat zutela, kolpeka eta kantuan aritu ziren beroketa lanak egiten. Ondoren

ren txaranga iritsi zen eta denek batera etzirako ekitaldia prestatu zuten. Urtarrilaren 25ean, 18:00etan herriko plazara Kalderereroz jantzita agertzeko deialdia ere zabaldu zuten, denek batera Kaldereroko ospatzeko ASMOZ. ASIERIMAZ

Baserri buruzko biziraupenari buruzko jardunaldiak

ERREDAKZIOA

Baserrien biziraupenei buruzko jardunaldiak prestatu dituzte Lizarruzti parketxekoei hilabete osoan zehar. Bihar Abaltzisketako jardunaldiak Kultur Etxean egingo dituzte. 15:30ean hasiko dira 20:00ak arte, eta bi zatitan banatuta. Hogei minutuko atsedendia egingo dute tartean.

Hauek dira jorratuko dituzten gaiak: *Bal dute tokirik lehenago baserri artek gure gizartean?* Milu Castangekin; *Zer gertatzen ari da eta egiten ari gara baserri eremuak?* Tolomendiko Iker Karrerak bideratuko du.

17:30a aldera, Baserritarra datz, etorkizuneko apustua landa eremuen erronka berrien aurrean landuko dute. Jexux Argiñarena Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendari Nagusia arduratuko da gai honetaz.

Udaletxearen aurrekontuen inguruko herri batzarrera deitu dute bihar

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak 2008. urterako aurrekontuen inguruan eztabaidatzeko herri batzarrera deitu ditu herritar guztiak. Aipatu batzarra bihar bertan egingo dute, 19:00etatik aurrera, Anoetako Udal pleno aretoan.

Herritarren parte-hartzea, «ezinbestekoa»

Anoetako Udaletik azaldu dute-nez, «herriaren eta herritarren beharren araberako aurrekontuak egin nahi ditugu». Hori dela eta, herritarren ekarpenak eta iritziak jaso nahi dituzte, izan ere, «herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da».

Z Zurea da hitza info

Herrian aparkatzea, betiko ametsgaiztoa

Tolosa • Belaten eta Alde Zaharren bizi direnentzat ia ezinezkoa da aparkatzea aurrez bost aldiz Tolosa zeharkatu aurretik

rrek aparkatzeko arazoa konponduko duela diote, eta bitartean, zer? Inguru guztia itxita dago eta ezinezkoa da etxetik 10 minutu baino gertuago dagoen lekua topatzea.

Zer esanik ez Alde Zaharrean bizi direnentzat. Zeintzuk dira aukerak? Euskal Herri plazan ere obrak hasi dituzte eta han zeuden lekuak kendu egin dituzte. Epaitegiko aparkalekua ere desagertu egin da eta auto gehiegi dago plazekin alderatuz gero. Noiz konponduko dute arazo hau?

JON ANDER (TOLOSARRA)

Kaixo! Azkenaldian Tolosan aparkatzeko dagoen arazoa gero eta handiagoa dela iruditzen zait. Belate aldean bizi direnentzat ezinezkoa da aparkatzea. Obratan ari dira eta ez dakit, etorkizunean ho-

Grinzane Cavour saria irabazi du Atxagak

Asteasu • 'Soinujoiearen semea' lanarekin eskuratu du saria idazleak, atzerriko narratiba sailean.

ERREDAKZIOA

Bernardo Atxaga Asteasuko idazlearen 'Soinujoiearen semea' lanak Grinzane Cavour saria irabazi du. Halaber, sari hauen XXVIII edizioko *Superirabazlea* izeneko saria ere eskura dezake. Beste bi lanekin batera lehiatuko du asteasuarrak (Ingo Schulze egilearekin bere *Vidas nuevas* lanarekin, eta Ljudmila Ulickaja egile errusiarrarekin bere *Sinceramente, en Surik* eleberriarekin).

Irabazlearen izena 27 epaileen artean erabakiko dute Italian eta sari banaketa Grinzane Cavour gazteluan egingo dute, Piamontean.

Beste sailetako irabazleak

Sari hauek sail ezberdinak dituzte. Hauek dira, hain zuzen ere, beste sailetako idazle irabazleak: Don DeLillo estatu batuarrak Literaturari emandako bizitza sariarekin; Camerungo Leonora Miano egileak Egile berrien saria eramanduko du; Michele Mari, Elisabetta Rasy eta Serena Vitale italiarrak narratiba italiararen sailean gailendu dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Alex Muelak adimen emozionalaren inguruko hitzaldia eskaini zuen. ASIER IMAZ

Zigorraren inguruko hitzaldia gaur Kultur Astearen baitan

Ibarra » Gaur eta bihar hitzaldiak; etzi Kaldereroak herriko plazan eta larunbatean haur festa kiroldegian.

A. IMAZ

Uzturpe Ikastolak antolatutako Kultur Astea herenegun hasi zen, adimen emozionalaren inguruko hitzaldiarekin. Alex Muela, EHUko Hezkuntza eta Garapen ebolutiboko titularrak izan zen hizlari Kultur Etxean. Atzo berriz, *Herri Izkutuak* eta *Elikadura: anorexia eta bulimia* gaiak aztertu zituzten bi hitzaldiren inguruan.

Gaur 18:30ean Kultur Etxean Zigorraren aurrian beste aukera batzuk aztertuko dituzte 18:30ean Benito Izagirre kultur etxean. Hitzaldia 1-6 urteko haurrak dituzten gurasoentzat zuzendua egongo da eta hizlaria Nerea Mendizabal, AEMIKO kidea, izango da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez hitzaldian zigorraren ondo-

rioak eta motibazioak aztertuko dira; «isekak, sermoiak, abisuak, irainak eta mehatxuak guztiok hazterakoan entzun ditugun hizkuntzaren barnean daude. Ez da erraza etxeko ohitura hauek uztea edota ahaztea. Zigorrak amorr, mendeku, erruduntasun eta norberarekiko gupida sentimenduk sor ditzake; pertsonaren irudia galtzera ere eraman lezake. Zein kasutan da gomendagarria uko edo aurka egiten dizun seme/alababatzigortzea? Zer ondorio jasan behar du gaizki? jokatu duen haur batek?».

Hitzaldiek bihar jarraipena izango dute eta etzi herriko plaza-rik Kaldereroak irtengo dira. Larunbatean berriz haur festa ospatuko dute Belabieta kiroldegian 11:00etatik aurrera.

Argazki erakusketa

Kultur Asteak irauten duen egun guztietan, Uzturpe Ikastolak argazki erakusketa antolatu du Ibarrrako Kultur Etxean. Bertan, *Europa hurruna* gaitzat hartuta argazkiak ipini dituzte.

Laburrak

Hautesle Zerrendak hilaren 28ra arte

IBARRA » Udalak jakinarazi duenez, «indarrean dauden Hautesle Zerrendak jendaurrean ezarrita urtarilaren 28a bitartean» egongo dira. Herritar guztiak euren datuak ikusteko aukera izango dute eta aldatetarako egin nahi dituztenek epe hori izango dute «Hautesle-Zerrendan beharrezkotzat jotzen diren erreklamazioak» aurkeztu ahal izateko.

Gizarte ongizate eta ingurumen batzordea

AMEZKETA » Udalak jakinarazi duenez, batzarra egingo da gaur 20:00etan balioaitzeko gelan. Hitzaldian *Ur kontsultazioan sartzea* ekar ditzakeen onura eta desabantailak aztertuko dira eta Iñigo Elozegi izango da hizlaria, Gipuzkoako Urak-eko gerentea. 21:00etatik aurrera informazio gisara eta erabakitzeko gai ezberdinak aztertuko dira.

Elkarrizketa

JOSE MANUEL TOBIAS Lauburu KEko zuzendaritzako kidea



ASIER IMAZ

«Bigarren itzulian mailari eustea izango da helburua»

Ibarra » Lauburu KEko lehen taldeak areto futbolaren Lehen Mailan jokatzeko du, bigarren multzoan; azken partida irabazi ostean, zazpigarren postuan aurkitzen da.

ASIER IMAZ

Lauburu Kirol Elkarteke zuzendaritzako kidea, prentsa arduraduna eta lehen taldearen delegatua da Jose Manuel Tobias (Tolosa, 1964). Lehen itzuliaren amaieran eta bigarrenaren hasieran, multzoko zazpigarren postuan aurkitzen da.

Denboraldi erdira iritsi zarete. Zein da egiten duzuen balorazioa?

Lehen itzuliaren balorazioa ez da loreak botatzeko modukoa. Denboraldi hasieran osatu genuen taldea txapelketa borrokatzeko modukoa zen, Zilarrezko Mailara igotzeko lehen pausoa eman zezakeen taldea. Bi baja izan gaituen baina taldeak ez du hutsunerik nabaritu, fitxaketa berriak ere egin baitenituen. Taldean zegoenari gehituta multzoko beste taldeei beldurra emateko moduko taldea osatu genuen.

Zer gertatu da orduan?

Egiaesan dena elkartu da. Haseran bi jokalarri garrantzitsu santzionaturik egon ziren eta gero, nahiz eta nahiko ongi hasi, arazo pertsonalak eta lesioak kontuan izan behar dituzte. Guri dena elkartu zaigu, jokalarri garrantzitsuak ere lesioekin eduki ditugu.

Iragna bakarrik al da hori?

Ez. Arazoak oraindik zintzilik jarraitzen dute. Horregatik juben-

lak igo behar izaten ditugu eta bestalde, taldea elkartzen saiatu gara. Gauzak horrela daude. Lehen itzulian postu txarretan baldin bazauke, bigarrenaren arazo bat izaten da; maila ez galtzean pentsatu behar izaten da eta jendea horretaz konturatzeko ari dela uste dut. **Bigarren itzulari behera begira hasiko diozue, beraz.**

Ez. Nik positiboa ikusten dut eta gora begira gainera. Aretoko futbolaren beste mailatan bezala gertatzen dela uste dut, lehen itzulia txarra bada bigarrena ona etortzen dela edo alderantziz. Nire ustez guk bolada txarra pasa dugu eta orain ona tokatzen zaigu. Honekin ez dut txapelketa irabazteko lehian ibili gogorela esan nahi, nik uste hori ahaztu dezakegula jadanik; maila mantentzean pentsatu behar dugula uste dut.

Nolako da zure ustez taldearen jokoa?

Oso ona dela esango nuke. Maila eta multzo honetako 16 taldeetatik, Sestao eta beste pare bat taldeekin batera, areto futbola jokatzeko dugu bakarrak gaitzen uste dut. Maila honetan asko defendituko da, kontraerasoak eta area kanpoko tiro asko daude. Gure partidak ikusten dituenak entrenatzailearen lana ikusten du, areto futboleko taktikak ikusten ditu. Beste zelai batzuetan, saiatzen zara jokatzeko baina besteek ostikada aurrera eta azken bi minutuetan bi gol egiten badituzte, partidak galtzen duzu, emaitza oso justak baitaude.

Zein da Kirol Elkartearen helburua?

Zilarrezko Mailan egotea zazpi urtetan oso polita izan da eta Ibarri areto futboleko indarra emateko

balio izan dio. Gorengo Mailan dauden talde asko etorri dira hona eta hori azpimarragarria da. Zilarrezko Mailara igotzea oso gogorra dago orain, aurrekontu handia eskatzen du horrek eta babesle on bat izan behar duzu hor egoteko. 35-40 milioi eduki behar dituzu eta 4.000 biztanleko herri baten zat oso zaila da. Orain 5 milioiko aurrekontuaren inguruan gabil-tza. Hala eta guztiz ere, denboraldi hasierako helburua lehenengoa geratzea da, Zilarrezko Mailara igotzea, ondoren ikusiko litzateke posible den ala ez.

Eskualdean kantera behintzat egon badago aurrera egiteko.

Tolosaldeko badu kantera bai. Lasgorain dagoen bezala ikusi eta gu ere nola gauden ikusita Tolosaldean kantera dagoela argi ikusten da. Kanpotik ere, Zilarrezko Mailara igotzeko asmoz daudenak ona etortzen dira jokalarri bila, Bizkaitik, esaterako.

Noiz izango du Lauburu KEak nesken taldea?

Gauzak dauden bezala oso zaila ikusten dut hori, oraingoz behintzat. Gaur egun mutilen hiru talde ditugu eta lan handia eskatzen du horrek. Bidaia, partidak, antolatu behar dira eta lau edo bost pertsona gabiltza hau dena aurrera emana nahian. Nesken taldea sortzea planteatu izan dugu baina oraingoz zaila izango da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. 656 41 68 08.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Altzo.** Candanchura eskiatzera joateko autobusa antolatu dute, 3 euroren truke. Izena udaletxean eman behar da (943 65 24 13). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Izena emateko azken eguna, otsailaren 1a (ostirala).
- **Altzo.** Udaletxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.
- **Anoeta.** Hilaren 26an egingo den Dantza sokaren azken entsegua etzi izango da Edurka pabilioian 19:00etan.
- **Berastegi.** Odola emateko aukera egongo da Berastegi 18:30etatik aurrera, Odol-emaleen elkarrekin antolatuta.
- **Berastegi.** Larunbaterako Inauteri Eguna antolatu Aldin kultur elkartek. Afarirako txartelak salgai daude Zelai tabernan eta Urepelel elkartean 20 eurotan.
- **Ibarra.** Kirol taldeek eta kirolariak urteko ekitaldietarako udal laguntzak eska ditzakete hilaren bukaera bitarte.
- **Tolosa.** *Tolosa Munduan* ziklorako abonoak salgai daude Kutxanet-en. Apirilean Noa, maiatzean Omar Faur eta ekainean Alasdair Fraser-Nathalie Haas izango dira zikloan.
- **Tolosa.** Inauterietako Danborradako entseguak gaur eta bihar izango dira Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 29an Udal Musika Eskolan 20:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Musika Bandak hilaren 27an eskainiko duen Inauteri kontzertuan parte hartzeko gonbitea egiten die Bandako kide ohiei. Entseguak, asteartean eta ostegunean 20:30ean Udal Musika Eskolan.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza

eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.

- **Tolosa.** Alpinok jakinarazi nahi du, astelehenetan eta asteazkenean 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela. *alpinouzturre@hotmail.com*
- **Zizurkil.** Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi dutenek udal bulegoetan egin dezake (Euskara Batzordea, 943 692495).

Hitzaldia

- **Ibarra.** AEMI elkarteke Nerea Mendizabalek *Zigorren aurrean beste aukera batzuk* hitzaldia emango du Benito Izagirre kultur etxean 18:30ean, 1-6 urteko haurren gurasoei zuzendua, Uzturperre Kultur Astearen barruan.

Erakusketa

- **Alegia.** Jubilatuen tabernan Ana Jesus Ansoenaren zeramika lanak daude ikusgai hilabete osoan zehar. Alegikoei buruzko batzuek gain, beste berri batzuk jarri ditu (orain ez daude Afrikako emakumei egindako omenaldienak). Asteartetik igandera bitarte.
- **Ibarra.** *Europa hurruna* erakusketa Benito Izagirre kultur etxean, Uzturperren Kultur Astearen.
- **Tolosa.** Malen Urtzelai eta Miriam Orkoioren margolarien lanak ikus daitezke Sorron koadro den-dan (Korroa kalea).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Oihana Agirreurreta Tobar (Alegia). Gaur 8 urte. Unai eta familiaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Mendiko eskiari buruzko ikastaroa

TOLOSA • Pasa den asteburuan Pirinioetara eginiko irteeraren ostean ekitaldi gehiago antolatu ditu Oargi mendi elkarteak asteburu honetarako, hilaren 25, 26

eta 27an. Hala, irteera antolatu du Portaletara; bertan mendiko eskia egingo dute. Interesatuak 637 830380 zenbakian eman dezaketeko izena. HITZA

hitza ren eskutik

G PUNTUA
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsoaldi hautatuak



Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**

